

Ideien errotatik

«Ba al dakizue nor den Joxe Azurmendi?», bota zizuen irakasleak. Frankfurteko eskola, Bourdieu eta Foucault buruzko eztabaidetan murgiltzea gustuko zenuten arren, inor gutxik altxatu zuen eskua. Mundura atera nahi zenuten, ezagutu, irakurri, Europako teoria kritikoekin liluratu, ondo jakin barik mundura nonbaitetik, etxetik, abiatzen zinetela.

Hori izan zen Azurmendiren obrara hurbiltzeko zenuten modua, begiak etxeko sutondora biratu eta bertan ur-jauziak deskubritzearena, arrokatik euskaraz irristatzen ziren ur-jauziak. Hogeit bat urte izango zenituzten, gizarte teorietz gose eta aldatzen ari zen herri eta mundu bat ulertzeko helduleku bila. Eta ñabarduraz, dotoreziaz eta estiloz betetako geltokia izan zen zuentzat Azurmendi. Europa 2008ko finantza kapitalisten krisitik ateratzen ari zen garaian irakurri ahal izan zenuen gizabere kooperatiboaz, Arizmendiarrietaz edo gizaki berriaren ametsen porrotaz, haren aberetasuna eta inperfekzioa onartu beharraz. Era berean deskubritu zenituzten Herder, Humboldt, alemaniar erromantikoak eta *Volksgeist*-a, nondik pentsatzen eta irakurtzen duzuen mundua argi izan zenezaten.

Konturatu zineten zuek, euskaldunok, nola zenbiltzaten besteen modernitateetatik ihesi baina zuen modernitate propioa garatu gabe. Nola kendu zizkizuten zuen izaera eta historiatic modernitate bi-dezidor bat esploratzeko aukerak. Euskararen hautua, modu natural batean bizi zenuten hori, tradizio filosofiko sendo baten indarrez zuen baitan zurkaizteko ariketa egiten lagundu zizuen. Hizkuntza, kultura, hain hauskor eta hain funtsezko.

Eta gatazka armatuaren amaiera aldira iristen zen belaunaldikoak zinetenez, tresna berriak jarri zizkizuen eskura, nor zen demokrata eta nor biolento ulertzeko, euskaldunon barbarizazio prozesu historikoaz

jabetzeko, eta berresteko Espainiaren errelatu nazionalean zergatik ez den sekula Euskal Herri burujaberik kabituko. Pentsarazi zizuen bote-reaz, Egiaren ministerioaz eta estatuak kontzientziak bortxatu eta manipulatzen baliatzen dituen bideez. Barkamenaz, kondenaz, torturaz.

Lagun batek galdetu zuen ea nola zen posible ordura arte bere berri-rik apenas eduki izana. Beste batek, herri xelebrea zela gurea, sen iraultzaile bila genbiltzan horiek Arantzazura jotzen genuelako armadura teorikoaren bila. Nolanahi den, adostu zenuten erudizio eta saskontasun horretako pentsalari handirik nekez errepikatuko dela zuen baldintza historikoetan, beste garai baten, beste eskola eta diziplina baten lekukotza dela, neurri batean, Azurmendiren obra amaiezina.

Irakurri zenuten zientziaz, sinesmenaz, tradizioaz eta bizitzaren zentzuaz; eztabaidatu munduaren birliluraz, errelatuaren eta mitoaren indarraz, ikuspegi zientifikoaren izaera estuegiaz. Eta beste irakurketa batzuekin osatuz, abiapuntu horretatik, buruak etengabeko bidaiak egiten zizkizuen gaurko korapiloetara, klima aldaketara, kapitalismoaren krisira, nazioarteko ordenaren eraldaketara edo gizartearen trantsizio feministara, eta energia aldakor horretan guztian euskarak, Euskal Herriak eta zuen nazio izaerak izan dezaketen eginkizunera.

Osatu zenuten, bada, munduan kokatzeko mapa txiki bat. Galdera berrien aurrean baliagarri izan daitekeen orientabide bat. Azken batean, modu askotan eta gai askorekin birkonektatu eta su txikiak pizteko ahalmena duen txingarra laga dizue etxean. Beti biziberri daitekeen pentsamendu oinarri bat, zirrikitu intelektual, politiko edo erlijiosoe-tatik pasatzeko gaitasuna duena. Opari bat, zuen XXI. mendeko Euskal Herri urbano eta mugitua pentsatzeko.

Agian haren pentsamendua desitxuratuko zaizue puska eta gai berri-goetan, elkarritzeta kolektiboaren ibilbide lanbrotsuan. Bilatuko dizkiozue konexio berriak eta agertuko zaizkizue haren ideiak bestelako forma batez. Dentsitatea galdu arren, ordea, asmatu beharko duzue moduren bat kontatzeko zuen azken egunak Azurmendirekin.